

Osasun-aseguruak % 4,1 hazi ziren aseguratutako pertsonetan eta % 8,7 primetan 2023an Euskal AEn

Aseguratutako pertsonen erdia baino gehiago emakumeak izan ziren (% 53)


Eustaten datuen arabera, 2023an, Euskal AEn establezimenduak zituzten aseguru-entitateek 525.435 pertsona zituzten osasun-aseguruarekin, hau da, % 4,1eko gehikuntza 2021eko ekitaldiarekin alderatuta. Halaber, prima gisa 398 milioi euro bildu ziren, hau da, % 8,7ko igoera.

Lurralde historikoka, eta aseguraturako pertsonen kopuruari dagokionez, % 67,1 Bizkaikoak izan ziren, % 20,6 Gipuzkoakoak eta % 12,3 Arabakoak; hala ere, 2021arekin alderatuta, Gipuzkoa izan zen gehien hazi zen lurraldea pertsona aseguratueta (+%10,7), ondoren Araba (+%9,2) eta Bizkaia (+%1,4).

Aseguratutako pertsonen proportzioa biztanleria osoarekiko % 23,9koa izan zen Euskal AEn (% 23 2021ean). Lurralde historikoka, altuena Bizkaian izan zen (% 30,7), ondoren Araban (% 19,4) eta azkenik Gipuzkoan (% 15).

Kolektibo horren ezaugarriei dagokienez, emakumeek gizonak baino presentzia handiagoa izan zuten osasun-aseguruan (% 52,8 eta % 47,2, hurrenez hurren). **45-64 urte** bitarteko adin-taldea izan zen aseguraturako pertsonen kopuru handiena bildu zuena, % 34,8rekin; ondoren, **25-44 urtekoen** taldea (% 26,1); biak % 60,9 izan ziren. Gainera, adin pediatrikoan izan ezik, emakumeen kopurua gizonena baino handiagoa izan zen, eta alde hori nabarmenagoa izan zen 25-44 urtekoen taldean.

Osasun-asegurua duten pertsonak, adinaren eta sexuaren arabera. Euskal AE. 2023




Iturria: Eustat. Osasun arreata pribatuaren estatistika

Traumatologia, oftalmologia eta obstetrizia-ginekologia izan ziren gehien eskatu ziren kontsultak

Aseguru-entitateek 1,8 milioi kontsulta izan zituzten guztira 2023an; ohikoenak honako hauek izan ziren, hurrenkera honetan: traumatologia (240.000), oftalmologia (191.000), obstetrizia eta ginekologia (184.000) eta dermatologia (158.000), kontsulten % 43,8 guztira. Horren atzetik, lehen mailako arretarekin lotutakoak daude: familia-medikuntza (129.000) eta pediatria (87.000). Horrek adierazten du mediku-asegurua erabiltzen dela arreta espezializatuarekin lotutako kontsultetara joateko.

Aseguru pribatuko erakundearen konturako kontsultak, espezialitateen arabera. Euskal AE (%). 2023




Iturria: Eustat. Osasun arreta pribatuaren estatistika

Aseguru kolektiboak hazi ziren gehien aseguratutako pertsonen eta primen artean

Konpainiek 398 milioi euro bildu zituzten prima gisa, hau da, 2021ean baino % 8,7 gehiago. Zifra hori BPGren % 0,43 izan zen 2023an (% 0,47 2021ean). Lurraldeka, prima horien ordainketaren % 69,9 Bizkaian kontzentratu zen, % 19,3 Gipuzkoan eta % 10,8 Araban.

Aseguratutako pertsonak eta prima-bolumena osasun-aseguruetan, hartzaile motaren arabera. Euskal AE (%). 2023



Iturria: Eustat. Osasun arreta pribatuaren estatistika

Hartzaile-motaren arabera, aseguru kolektiboek, hau da, enpresei edo beste kolektibo jakin batzuei zuzendutakoek, osasun-aseguru zuten pertsonen % 61,3 bildu zuten, banakoen eta familiakoen % 33,9 eta Estatuko Administrazio Zentraleko funtzionarioen mutualitate publikoen % 4,8. 2021eko datuekin alderatuta, aseguru kolektiboek irabazi zuten gehien aseguratutako pertsonen artean (+%5,2), eta ondoren banakoek edo familiakoek (+%4). Mutualista publikoen kopuruak, berriz, behera egin zuen (-%8).

Primen banaketari dagokionez, % 52,9 aseguru kolektiboek zegozkien, % 40,3 aseguru indibidual edo familiarrei, eta % 6,8 Estatuko Administrazio Zentraleko funtzionarioen mutualitate publikoei. 2021eko datuekin alderatuta, primen bolumenak gora egin zuen modalitate guztietan, eta aseguru kolektiboek izan zuten igoerarik handiena (+%10,5); ondoren, banakoek edo familiakoek (+%7,5), eta mutualitate publikoetatik urrunago (+%2).

Euskal AEko osasun-aseguramenduaren magnitude nagusiak. 2023

	2023	2021	Gehikuntza (%) 2023/2021
ASEGURUA DITUZTEN PERTSONAK	525.435	504.762	+4,1
Lurralde Historikoaren arabera			
Araba/Álava	64.596	59.133	+9,2
Bizkaia	352.489	347.755	+1,4
Gipuzkoa	108.350	97.874	+10,7
Hartzaile motaren arabera			
Aseguru indibidualak edo familiarrak	178.164	171.269	+4,0
Mutualitate publikoak (*)	25.296	27.486	-8,0
Bestelako taldeak	321.975	306.007	+5,2
PRIMEN BOLUMENA (mila €)	398.009	366.238	+8,7
Lurralde Historikoaren arabera			
Araba/Álava	43.135	38.815	+11,1
Bizkaia	278.105	260.791	+6,6
Gipuzkoa	76.769	66.632	+15,2
Hartzaile motaren arabera			
Aseguru indibidualak edo familiarrak	160.271	149.076	+7,5
Mutualitate publikoak (*)	27.075	26.555	+2,0
Bestelako taldeak	210.663	190.607	+10,5
Pisua BPGrekiko (%)	0,43	0,47	

(*)Barne hartzen ditu MUFACE (Estatuko Funtzionario Zibilen Mutualitate Orokorra), MUGEJU (Mutualitate Orokor Judiziala) eta ISFAS (Indar Armatuaren Gizarte Institutua)

Data 2024ko Abenduaren 27a

Iturria: Eustat. Osasun arreta pribatuaren estatistika

Ohar metodologikoa:

Estatistika honek Euskal Autonomia Erkidegoan gutxienez establezimendu bat duten aseguru libreko erakundeen informazioa jasotzen du. Ez dira jasotzen borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak; izan ere, ez dute aseguratzaileria.

Informazio gehiago:

[Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tf: 945 01 75 62

[Prentsa-ohar gehiago Osasun-arreta pribatuko estatistikari buruz](#)